



**ARKAITZ ZARRAGA
AZUMENDI**
EUSKARA IRAKASLEA

Ni ez nago harro

Euskaltegi “publiko” edo titularitate publikoko batean ari naiz lanean. Susmoa dugu, azken aldian, sare hau agortzea bilatzen dutela batzuek. Horregatik amortizatzen dira jubilatzen diren irakasle askoren postuak. Garai bateko egoera gatazkatsutik sortutako ez-sarea gara. Izan ere, eta Joseba Arregik ETBn onartu zuen bezala, “euskaltegi publikoak AEKri eta HBri euskaltegien monopolioa kentzeko sortu ziren” 1980ko hamarkadan. Hala ere, uste dut beharrezkoa dela euskaltegien sare publiko bat, nola ez. Administrazioek bermatu egin behar dute helduek euskara ikasteko duten eskubidea, eta horretarako ezinbestekoa da euren titularitateko sarea.

Hori esanda, ni ez nago harro euskaltegi publiko batean aritzeaz. Hasteko, gure sarea, Bildarratz buru duen ikastetxeena bezala, hiru herrialdetara mugatzen delako. Beraz, inposatu zaigun banaketa horren morroi gara, eta irakasleok beste ikuspegi bat eman nahi badiogu ere, mugak agerikoak dira.

Bestetik, Eskola Publiko askotan bezala, gurean ere dokumentu metodologikoak sarritan apal batean egoten dira, benetako pisurik gabe. Euskaltegietan Curriculum eta Eskola Publikoetan Hizkuntza-Proiektuak bertako klaustroaren eta sarritan irakasle jakinen arabera hartzen dira kontuan. Eskola publikoetan gaur Eki, bihar Ibaizabaleko liburuak eta etzi Santillanakoak erabiltzen dituzte,

irakasleek dituzten irizpideen arabera. Gurean ere askotan irakasle bakoitzak metodo komunikatiboa erabiltzea erabaki dezake, edo bide estruktural edo tradizionalagoa.

Eskola publikoetan gertatzen den bezala, gurean ere ikasleek erdaraz hitz egiten dute maiz euskaltegitik irtenda, zentroko karrajuetan eta batzuetan klase barruan. Badakigu ez dagoela gure esku ikasleen testuinguru guztietan eragitea, mugatuta gaudela euren erabilera maila igotzeko, baina uste dut badugula gehiago egiterik, baliabide gehiago eskatzerik eta egiturazko aldaketak aldarrikatzerik.

Horregatik eta beste hainbat arrazoiengatik, ez dut ulertzen baldintza hobekien eskatzeko, nireaz harro nagoela aldarrikatu behar dudarik. Beste sare batzuek ere geuk pairatzen ditugun hainbat arazo partekatzen dituzte gurekin, baina pozik nago euren baldintzak azken aldian hobetu direlako. Badakit ezingo lireratekeela ikasle guztiak “sare publikoan” sartu, eta egiten duten lana ezinbestekoa da herri hau noizbait euskaldunduko badugu.

Hori bai, ez nuke onartuko euskara erlijio bat zabaltzeko erabiltzea, eta hori gertatzen da irakaskuntza araututan. Hezkuntzan ere ez lukete onartuko mozkinak banatzen dituzten eskolek diru-laguntzak jasotzea. Bietan dugu zer hobetu, baina momentuz, behintzat, ez dugu harro egoteko arrazoirik. ●



**CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA**

Kezko maiteak

Batzuetan nahi ez duzun tokian bukatzen duzu jada maite ez zaituen batekin. Nik Cristina Rosenvingeren kontzertu batean bukatu nuen lehengoan. Ez naiz akordatzten kanta bakar batekin ere, baina bai kanten artean Rosenvingek esaten zuenaz. Desezriaz hitz egin zuen, nola bere bi guraso daniarrak ezkontza bidaiari joan ziren Espainiara, eta autoa izorratu eta bertan geratu ziren. Berak ez dakiela daniaraz hizketan, eta nola saiatzen zen aita azentua ezabatzen kanpokoa zela jakin ez zedin eta, nola amak, berriz, daniararen arrastoa mantendu zuen betiko. Aitak ez zuen inoiz kontzertu batean ikusi.

Ama joaten zen aukera zuenean jarrita egoteko. Bere aitari buruzko aipamenak egin zituen beretako ezezagun bat zena guri aurkeztu nahi izan baligu bezala. Kontatu zigun Federico García Lorcareren poemen bidez ikasi zuela ingeniari daniar hark gaztelaniaz. Zer pentsatua eman zidan. Lan berri bat hasten dugunean beti behar da pizgarri bat, detonagailu bat, akuilu bat. Eta nago askotan dela guretako ezezaguna den zerbait deskubritu nahi izatea. Maite izan genuen norbait, ezabatu nahi izan duguna kezko bilakatu arte, baina azalarazten ari garen heinean geure burua agertzen duena. ●